

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 2012rako Aurrekontuen aurreproiektuaren helburuak zerbitzu publikoak prestatzen jarraitzea, inbertsioari eustea eta ekonomia eta enplegua suspertzea dira

*Aurreikusienez, 3.711 milioi euroko gastu ez finantzarioa egongo da, indarrean den aurrekontuan baino % 2,95 gutxiago*

Lunes, 24 de octubre de 2011

2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektua gaur onetsi da Gobernuaren ezohiko bileran, eta 3.837,7 milioi euroko gastu osoa aurreikusi da. Horietatik 3.711 milioi euro gastu ez finantzarioa da, hau da, departamentuek gauzatu ahal izango dutena. Zenbateko hori, egoera ekonomiko berriak eraginda, % 2,95 jaitsi da aurtengo ekitaldiaren gastu mugarekin alderatuta.



Nafarroako Jauregiaren fatxada

Aurreproiektua gaur aurkeztu du Álvaro Miranda bigarren presidenteorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak, eta oinarri hauekin bat etorriz egin da: Eskualdeko BPGren % 1,3ko defizitaren helburua betetzea, gastu publikoari eustea (esan bezala, % 2,95 gutxiago), osasun, gizarte gai eta hezkuntzako zerbitzu publikoak mantentzea (hiru departamentuen artean aurrekontu osoaren % 51,28 hartzen dute. 2011an % 51,61 hartu zuten), eta ekonomia eta enplegua suspertzearen aldeko apustua egitea, inbertsioei eutsiz, baina arreta jarritz egoera ekonomiko ezegonkorragatik.

### 3.407 milioi euroko diru-sarrerak

Diru-sarreraren kapituluan, Nafarroako Foru Erkidegoak 2012an 3.407 milioi euroko diru-sarrera izango duela aurreikusi da. Horietatik 3.198 zerga bilketatik jasoko dira, 2011ko itxieran baino % 2,5 gehiago. Zenbateko hori, % 1,3ko defizitaren (257 milioi euro) helburuari eta estatuko kontabilitatearen doiketei (47 milioi Nafarroaren alde) lotuta, 2012rako 3.711 milioi euroko gastu ez finantzarioa ateratzen da.

Aurreko urteari dagokionez, inbertsioak kontuan hartu gabe, aurrekontuko gastua Sustapen eta Etxebizitza departamentuan (Pirinioetako Autobiagatikako kanonaren ordainketa hartuko du beregain lehen aldiz) eta Ekonomia eta Ogasuna departamentuan (Hitzarmen

Ekonomiari eta zorraren interesei egindako ekarpen handiagoa dela-eta) igo egin da eta jaitsi gainerakoetan. Lau departamentutako gastuak (Osasuna; Hezkuntza; Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria; eta Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko departamentua) % 5 baino gutxiago egingo du behera; hala ere, Osasun Departamentuaren gastuaren jaitsiera % 3,08koa izango da.

### **Zerga neurriak**

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak datorren urtean ezarriko diren zerga neurri nagusiak ere azaldu ditu. Besteak beste, Gobernuak Nafarroan Ondarearen Zerga berreskuratzea aurreikusi du, duela gutxi estatuak onetsi duen erregulazioarekin bat etorritik (700.000 euroraino zergen gutxieneko salbuespena eta 300.000 euroraino salbuespena ohiko etxebizitza). Halaber, kapital-errenten zerga % 18tik 19ra pasa da urtean 6.000 euro baino gutxiagoko higikorren kapitalaren etekinentzat, eta partzialki kendu da 440 euroko lanagatikoen kargu gehigarria. Edonola ere, 12.000 euro jasotzen dituzten zergadunentzat mantendu egingo da (2010ean 120.000 deklaratzaileraino baino gehiago izan ziren). Horren haritik, gogorarazi behar da neurri hori Nafarroako araudian ezarri zela 2008an eta, une honetan, Foru Erkidegoa da araudia jasotzen duen bakarra.

Etxebizitzaren alorreko zerga neurriei dagokienez, hauek mantendu dira 2012rako: etxebizitza erostearen karguak, etxebizitza kontuaren epea 10 urtera arte handitzea, etxebizitza kontua aparteko kasuetarako berreskuratzea eta ohiko etxebizitzan berriz inbertitzeagatik epea handitzea.

2012ko urtarrilaren 1etik hasita aplikatuko diren beste zerga neurrietako bat terrorismoaren biktimek emandako zenbatekoen salbuespena da, Terrorismoaren Biktimen Errekonoizimendurako eta Babes Integralerako irailaren 23ko 29/2011 Legeari jarraiki. Nafarroako araudiak terrorismoaren biktimen elkartasunerako urriaren 8ko 32/1999 Legeari jarraiki jasotako kalte-ordainetarako salbuespena jaso arren, aldaketa horren bidez zerga onuraren esparrua handitzen da, hortaz, laguntza horiek jasotzen dituenak ez du horien PFEZ ordaindu behar.

Beste alde batetik, kirol, gizarte edo kultura erakunde pribatuak babesteagatik zerga karguak handituko dira, beraz, honela geratuko dira: urtero 30.000 eurora arteko babesak emanez gero, % 30eko karguak; 30.000 eta 60.000 euro artekoak, % 35; urtean 60.000 baino gehiagoko babesak emanez gero, % 40koa; 2012ko babesle berrien kasuan, zerga karguak % 50koa izango da.

Aparteko kapitulua merezi du ekonomia eta enplegua suspertzeko zerga neurrien multzoak. Krisi ekonomikoa zehar ezarritako 17 zerga neurriei eutsiko zaie eta aurtengo abenduaren 31n irautziko ziren neurri hauek luzatuko dira:

- Enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen inbertsioen amortizazio azeleratua.
- Inbertsioen erreserba berezia eta berriz inbertitzeagatik salbuespen kasuetan inbertsioa gauzatzeko epea luzatzea (berritasun gisa, gutxieneko muga 150.000 euro izatetik 90.000 euro izatera pasa da).
- Zerga karguak % 30 handitzea 2012an eta 2013an mikroETE, enpresa txiki eta ertain, profesional eta autonomoen lanpostuak sortzeagatik.
- Sozietateen gaineko Zerga murriztea 2012an enplegua sortu edo mantentzen dutenei (mikroETE-en kasuan % 23tik % 20ra pasatzen da eta enpresa txiki eta ertainen kasuan % 28tik %27ra).
- Sozietateen gaineko Zerga % 18tik % 17ra murriztea ekonomia sozialeko enpresei.

Gainera, zerga onurak ematen zaizkie MODERNA fundaziora ekarpenak egiten dituzten enpresei.

Garai honetan neurri horiei eutsiz Nafarroako Gobernuak Foru Erkidegoko enpresekin eta enplegua sortzearekin duen konpromisoa azpimarratzen da.

Hemendik aurrera, aurreproiektua Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari bidaliko zaio txostena egin dezan, proiektua onetsi eta datorren azaroaren 7an Foru Parlamentuan aurkeztu aurreko urrats gisa.

Hemendik aurrera, aurreproiektua Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari bidaliko zaio txostena egin dezan, proiektua onetsi eta datorren azaroaren 7an Foru Parlamentuan aurkeztu aurreko urrats gisa. Hala, datorren abenduan izenpetu eta onetsi, eta urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da.